

Halloween ala Gau Beltza? Inportatutako ala bertako tradizioa?

Urriaren 31a badator eta munduko txoko askotan ospatuko dute Halloween. Baita Euskal Herrian ere, azken urteotan. Zenbait herritan; Aretxabaletan edo Motrikun, kasu; aspalditik Gaba Beltza ospatzen dute. Baina, komunikabideen eraginez inportatutako tradizioa da ala bertakoa?



Irakurri artikulu hau. Haren arabera, Halloween Euskal Herriko tradizioan errotutako ohitura da.

Halloween eskal ohitura zaharra

Amaia 2016-10-19. euskaraetaliteratura.blogspot.com

Halloween jatorriz euskal festa bat da. Euskalduna bakarrik? Ez, noski, ia Europa osoarena, baina baita Euskal Herrikoa ere. Europako etorkinek eraman zuten Ameriketara, eta hemen desagertzen joan zen neurrian joan zen han sendotzen. Eta orain, Amerikarren festa dela pentsatuta hasi gara berri ere ospatzen. Nortasun gutxikoak gara, gero.

Noski, hemen ez zaio inoiz Halloween deitu, Arimen eguna baizik. Toribio Etxebarriak idatzi zuen: *"Animen egunian, oitura zarra zan Eibar-en, jan da eran tabernan eittia moskortu arte. Baita kaleko neska mutillak, alkarregaz, baserrixetan gastaca erriak jatia."*

Mutrikun adinekoek gogoratzen omen dute gaztetan ortuetatik kalabazak lapurtu, hustu eta barruan kandelak jarrita kaleetan, atarietan jartzen zituztela. Badira urte batzuk Mutrikun Arimen egunaren ospakizuna berpiztu zutela: Gaba Beltza izendatu zuten, larunbat gauean finkatu eta izugarritzko indarra hartu du urte gutxitan. Marka da, gero, gure tradizioak Hollywood-i esker biziberritzea!

Neguko festen ezaugarri nagusietakoa etxez-etxeko (eta atez-ateko!) kuestazio erronda da (edo izan da). Gazte taldeek baserriz-baserriz eta etxez-etxeko jira egiten dute, mozorrotuta (inauterietan) edo kantuan (Santa Eskean, Olentzerotan,...) eta jakiak, dirua edo goxokiak biltzen.

Europa osoan ospatzen dira mota honetako neguko festak, eta Halloween horixe da funtsean. Eta eskatzeko hamaika formula desberdin erabiltzen dira, adibidez: "Aginaldo, aginaldo, urdaia bota ta ixilduko!" edo "emongo bozu emoizu, bestela ezetz esaizu, ate osteko haiziak hartzen amak ez gaitu bialdu!". Mutrikun, Gaba Beltzean, kalabazak atarietan jarri, eta esakera polita kantatzen zuten: "Xesteron kontra, animen alde...". Xestero Mutrikuko ehortzailearen izena omen zen.

Nork esan du Halloween euskal ohitura zaharra ez denik?

Ezagutzen al duzu beste euskal tradizioarik? Eta zinemaren eraginez atzeritik inportatutako eta gaur egun hemen errotutako beste tradizioarik? Azaldu, idatziz, tradizio horietako bat zertan den; eta ikaskideen aurrean kontatu.

Ziria ala saria



Halloween festak kalabaza eta armiarma sareez bete ditu inguruak, baina gero eta gehiago dira Arimen Gaua edo Gau Beltza ospatzeko ohitura Euskal Herrian ondo errotutako tradizioa dela sostengatzen dutenak.

Gainera, Euskal Herrian aspaldi-aspaldian ospatu den Arimen Gaua, oinarri-oinarrian, ez dago oso urruti film amerikarretan ikusten ditugun irudietatik. Halaxe kontatu digute hainbat lekukok jarraian ikusiko duzun [bideo](#)an. Ez beldurtu zuek ere esaten duten guztia ulertzen ez badiezue, nahikoa da kontakizunaren esanahia ulertzearekin.

Ondo ulertu al dituzu emakume-gizon edadetu horiek kontatutako pasadizoak? Erantzun ondoko galderak eta konprobatu noraino ulertu duzun.

1- Karmele Esnalen arabera, zer egiten zuten mutilek Arimen Gauan?

- a- Kalabazak erosi, hustu, kandela jartzen zioten barruan eta errosarioa errezzatetik zetozen emakumeei botatzen zizkieten.
- b- Kalabazak lapurtu, hustu, linterna bat jartzen zioten barruan eta tabernatik zetozen emakumeak izutu egiten zituzten.
- c- Kalabazak hustu, begietako eta ahoko zuloak egin, eta kandela jartzen zioten barruan. Gero errosarioa errezzatetik zetozen emakumeak izutu egiten zituzten.

2- Juanatxo Olinagak ere kontatu du horrelako pasadizo bat...

- a- Esne marmitak kalean saltzen zituen emakume bati sustoa eman zioten, bide ertzean hustutako kalabaza bat jarrita, barruan kandela bat piztuta. Emakumeak, ikaratuta, alde egin zuen.
- b- Esne marmitak kalean gora eta behera zekartzan emakume bat izutu nahi zuten, bide ertzean hustutako kalabaza bat jarrita, barruan kandela bat piztuta. Baina, emakumeak kalabaza hartu, astoaren saskian sartu, eta etxera eraman zuen.
- c- Esne saltzaile bati sustoa eman nahi zioten, bide erdian hustutako kalabaza bat jarrita, barruan kandela bat piztuta zuela. Baina, emakumeak kalabaza hartu eta astoari eman zion jaten.

3- Emakume talde batek ere euren esperientzia kontatu du...

- a- Arbiak erabiltzen zituzten, hustuta, begiak eta ahoa zulatuta, eta barruan kandela bat sartuta, iluntasunean argitzeko.
- b- Erbiak erabiltzen zituzten, hustuta, begiak eta ahoa zulatuta, eta barruan kandela bat sartuta, iluntasunean argitzeko.
- c- Arbiak erabiltzen zituzten, hustuta, begiak eta ahoa zulatuta, eta barruan kandela bat sartuta, umeak ikartzeko.

4- Maria Zabalak kontatu du neska batzuk ikaratuta etorri eta deabrua ikusi zutela esan zutela. Zer egin zuten berak?

- a- Bera ere korrika atera zen beldurtuta.
- b- Kalabazak zirela konturatu zen, hustuta eta barruan kandela bat zerratela, eta ostiko bat eman zien kalabazei.
- c- Kalabazak zirela konturatuta, ostikoa eman zien neskei engainatu nahi izan zutelako.

JOXEMARI CARRERE. IPUIN KONTALARIA

GABA BELTZA

Aspaldian Mutrikuko kale zahar ilunetan, gazteek herritarrak izutzen zituzten kalabaza argitsuekin. Kalabazak baratzeetik lapurtu behar ziren, ondoren hustu eta aurpegi beldurgarria egin, gero kandela sartu barruan eta izkina batean itxoin behar zen despistaturen bat agertu arte. Defuntuen egunean izaten ohi zen. Halaxe kontatzen zieten zaharrek egun horretarako festa berreskuratzeko asmoz zebiltzan gazteei. Kalabaza argidunak hartu zituzten antolatzen ari ziren festaren ikur. Eta festari Gaba Beltza jarri zioten. Heriotzaren inguruko festa ederra, hamaika ekitaldirekin. Eta eskoletan landu zuten gaia, haurrek aitona-amonei beren garaiko kontuak galdetuz, kalabazak era guztietan prestatu dendetako erakusleihoetan jartzeko.

Dena dela, une oro azalpenak ematen ibili behar izan zuten, kalabazarena bertako ohitura zela eta ez Ameriketako Estatu Batuetatik kopiatutakoa. Eta Gaba Beltza arrakastatsua egin zuten.

Zenbatetan ez ote ditugu bertako ohitura zaharrak baztertzen edo ez ezagutzen, itxuraz berriengatik aldatuz, modernoagoak direlakoan? Garaiekin gure imajinarioak aberasten eta aldatzen doaz, logikoa den moduan; arazoa dator imajinarioa merkatuaren legearen arabera aldatzean.

Kalabazak ez dira baratzeakoak orain, gure irudimena merkaturatzeko plastiko puska baizik. Gau ilunean sar dadin.

Zer iritzi dio Joxemari Carrerek Gaba Beltza ospatzeari? Eta zu, zein da zure iritzia? Berreskuratu behar al dira tradizio zaharrak? Garai berrietara egokitu behar dira? Bidezkoa al da atzerriko kultura bateko tradizioak gurera ekartzea? Eman zure iritzia, idatziz, paragrafo batean, honako egiturak erabiliz:

ADOSTASUNA

Guztiz ados nago esan duenarekin
Bat nator esan duenarekin
Zuzen dagoela uste dut
Ni ere iritzi berekoa naiz
Bai horixe!

DESADOSTASUNA

Ez dut uste hori horrela denik
Ez nago batere ados esan duenarekin
Ez nator bat esan duenarekin
Nire ustez oker dago
Nik bestelako iritzia daukat
Bai zera!

IRITZIA EMATEKO

Nire ustez / iritzi...
Nik uste dut... -(e)la
Nik ez dut uste... -(e)nik
Niri irudutzen zait... -(e)la

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....




Animen gaua, umeen kontua

Gaur egun, dela tradizioagatik, dela hedabideen eraginagatik, seme-alabak dituen inork gutxi egin ahal dio ihes Halloween ospakizunari. Agian, festa anglosaxoiaren amaraunean erortzea saihestu ezin badugu, aprobeitza dezakegu jaiaren oihartzun soziala euskal tradizioari atxikitako ospakizuna berreskuratuzeko. Haurrak badituzu, akaso, baliagarria izango zaizu *Animen Gaua* kanta, bestela ere, entzun eta goza ezazu.

2018an *Pirritx, Porrotx eta Marimitots* pailazo taldeak *Musua* izeneko diska kaleratu zuen. Kanta bilduma horretan egutegiari, solstizioei eta euskal tradizioei lotutako gaiak hartu, moldatu eta eguneratu egin zituzten; gaur egungo umei helarazteko.

Abesti horietako batean, *Animen Gaua* izenekoan, Gau Beltzaren inguruko ohiturak bildu eta musika jarri zieten. Kanta ezin aproposagoa da urriaren 31ko gaueko ospakizunak girotzeko; diskako beste kanta guztiak egutegiko beste hainbat hitzordu girotzeko aproposak diren bezala.



Saiatu *Animen Gaua* abestiaren testuko hutsuneak betetzen. Gero, [kanta](#) entzun eta konprobatu hutsuneak modu zuzenean bete dituzun.

Animen gaua

Beltza da gaua,
denok ___1___ piztu
___2___ erre
ta ___3___ hustu
___4___ jantzi
Mamu zaharrak berpiztu

Katu beltza ari da miau ta miau
Ai! Oi ene! ___5___ harrapatu nau
Gau osoan ez lege ez ___6___
oihu ta alarau

Zer emango zenuke
Zure ___7___ truke

- 1- Pardelak / sakelak / kandelak
- 2- Gaztainak / zigarretak / edukiontziak
- 3- Karterak / kalabazak / sabelak
- 4- Pijamak / izarak / izarrak
- 5- Aitzurrak / autobusak / beldurrak
- 6- Arau / barau / logure
- 7- Erlojuaren / karteraren / arimaren

Ziria ala saria?

1- **Karmele Esnalen arabera, zer egiten zuten mutilek Arimen Gauan?**

C - Kalabazak hustu, begietako eta ahoko zuloak egin, eta kandela jartzen zioten barruan. Gero errosarioa erreztatetik zetozen emakumeak izutu egiten zituzten.

2- **Juanatxo Olinagak ere kontatu du horrelako pasadizo bat...**

B - Esne marmitak kalean gora eta behera zekartzan emakume bat izutu nahi zuten, bide ertzean hustutako kalabaza bat jarrita, barruan kandela bat piztuta. Baina, emakumeak kalabaza hartu, astoaren saskian sartu, eta etxera eraman zuen.

3- **Emakume talde batek ere euren esperientzia kontatu du...**

A - Arbiak erabiltzen zituzten, hustuta, begiak eta ahoa zulatuta, eta barruan kandela bat sartuta, iluntasunean argitzeko.

4- **Maria Zabalak kontatu du neska batzuk ikaratuta etorri eta deabrua ikusi zutela esan zutela. Zer egin zuen berak?**

B - Kalabazak zirela konturatu zen, hustuta eta barruan kandela bat zeramatela, eta ostiko bat eman zien kalabazei.

Animen gaua, umeen kontua

Animen gaua

Beltza da gaua,
denok **kandelak** piztu
Gaztainak erre
ta **kalabazak** hustu
Izarak jantzi
Mamu zaharrak berpiztu

Katu beltza ari da miau ta miau
Ai! Oi ene! **Beldurrak** harrapatu nau
Gau osoan ez lege ez **arau**
oihu ta alarau

Zer emango zenuke
Zure **arimaren** truke